

Makineria fabrikatzaile industria sektoreko enpresek %5eko energia baino gehiago aurreztu dute Gipuzkoako Bazkondeak bultzatu duen proiektu bati esker

Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Ekogunearen finantzazioa jaso du, ADEGIren laguntzarekin batera.

➤ Aurreztutako energia gipuzkoako 115 familiak urte betean kontsumitzen dutenaren parekoa da, eta honek atmosferara 361 tona CO2 gutxiago zabaltzea suposatzen du.

➤ Proiektuan planteatzen diren neurriak 180.000 euroko inbertsioa dute, baina aurreztutako energiari esker enpresek 8 hilabetetan berreskuratzen dute gastu hori.

➤ Ekimen honek izan duen arrakasta ikusita lau entitateek proiektua beste urte betez luzatzea erabaki dute.

Donostia, 2013ko maiatzak 23. Energiaren eraginkortasunerako eta energia aurrezteko proiektua 2011ean jarri zen martxan, lau entitateek garai hartan zuten hitzarmen bati esker. Urte hartan bertan burutu zen lehen fasea eta bigarrena 2012an egin da, energiaren %5,2ko aurrezpena lortu delarik makineria fabrikatzaile industria arloko enpresetan. Proiektua Gipuzkoako Bazkondeak bultzatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurugiro departamentuaren eta Kutxa Ekogunearen finantzazioarekin, eta ADEGIren laguntzarekin.

PRENTSA OHARRA

Ekimena Gipuzkoako enpresen artean energia kontsumoa jaisteko eta aurrezteko xedearekin sortu zen. Lehenengo fasean proiektua metalmekanika industriaren sektoreari zuzendua egon zen, txiribilez abiatutako industria mekanizatuari eta %4,3a aurreztea lortu zuten energia kontsumoan. Bigarren fase honetan parte hartutako enpresak makineria fabrikatzaile industria sektorekoak dira eta 2012an %5,2ko energia aurreztea lortu dute. Aurreztutako energia hau gipuzkoako 115 familiak urte betean kontsumitzen dutenaren parekoa da, eta honek atmosferara 361 tona CO2 gutxiago zabaltzea suposatzen du.

Aurrezpen kopuru hau lortu ahal izateko 180.250 euroko inbertsioa egin da. Proiektua burutu duten 20 enpresek onartu dezaketen gastu bat izateaz gain, azkar berreskuratzen den kopuru bat da. 8 hilabetetan amortizatzen da inbertitutako dirua energia eraginkortasuneko neurrie esker, honek urtean 246.000 euroko aurrezpena suposatzen duelarik.

Neurriak

Proiektua 20 enpresetan aplikatu da, prestakuntza ekintzekin, benchmarkingekin eta asistentzia teknikoko zerbitzuaekin batera. Parte hartu duten enpresek 9 aurrezpen neurrien artean aukeratzeko ahalmena izan dute. Aukeratuenak konpresoreekin eta klimatizazioarekin erlazionatutakoak izan dira. Proposatutako 9 neurrien artean enpresa bakoitzak batazbesteko 4 neurri aukeratu ditu, berehalako aurrezpena suposatzen dutenak.

Diagnostikoan biltzen diren neurri guztiak hartuz gero berriz, 2012ko kontsumo energetikoaren aurrezpena 8,3 koa izango litzateke. 2.300 petroleo kupelen parekoa, urte betean gipuzkoako 183 familien kontsumoaren parekoa.

PRENTSA OHARRA

Praktika egokiak

Aukerako neurriez gain 34 praktika egoki gehitzea proposatu zaie enpresei, energiaren kontsumoa jaistea ahalbidetuko duten neurriak izango dira hauek. Horietako batzuk enpresak aplikatzen hasiak ziren iada, batzbesteko 7 praktika.

Orain arte aplikatzen ari ez zirenei buruz, osagarri moduan ikusten diren 10 praktika egoki inplementatzeko konpromisoa hartu dute enpresek. Energiaren eraginkortasunean eta aurrezpenean %49ko maila lortzeko behar diren praktika egokiak aplikatzea hitzeman dute. Jatorrian praktika horiek %20ko mailan aurkitzen ziren.

Ekimena 2014 arte luzatuko da

Ekimen honek izan duen arrakasta ikusita lau entitateek proiektua urte betez luzatzea erabaki dute. Oraingo honetan, helburua, kautxuaren eta materia plastikoen eraldatzea industria sektorean energia kontsumoa murriztea izango da. Eta baita forjaketa, estanzazioa, enbutizioa, trokelaketa, mozte eta repulsatu, eta metalezko produktuen galdaketan eta fabrikatzaile industria sektoreko enpresetan ere.

20 enpresen artean bultzatuko da aipatutako ekimena. Hasiera batean diagnostikoa egingo da, gero energiaren eraginkortasunean eta aurrezpenean hobetzeko proposamena bideratuko da eta ondoren enpresen jarraipena egingo da, laguntza tekniko espezializatuarekin. Amaitzeko, berriz, balorazio bat egingo da. Neurriak ezarri ondoren lortutako hobekuntzaren inguruko balorazioa izango da, balorazio kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatuko dituen.